



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA:
MAILAKETA GRAMATIKALA ETAB.

3

Euskara Zerbitzua
Glotodidaktika-lanak

GLOTODIDAKTIKA-LANAK 3

- © Prestatzailea: Ibon Olaziregi
Ohar egile eta laguntzaileak: J. A. Mujika
X. Gardner
- © Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Eusko Jaurlaritza
I.S.B.N.: 84-7542-247-0
Legezko Gordailua: VI-89-86
Lehenengo Argitaraldia: 1982ko Maiatza
Bigarren Argitaraldia: 1986ko Martxoan
Azala: Jesus Iturriza
Inprimatzailea: Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria-Gasteiz.

HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA
MAILAKETA GRAMATIKALA ETA
ETA ABAR

Gasteiz 1986

AURKIBIDEA

	<u>Orrialdea</u>
AURKEZPENA	9
I. MAILAKETA GRAMATIKALA	15
I.1. Mailaketa orokorra	19
I.2. Mailaketa zehaztua	23
I.3. Ohizko esaerak	53
II. METODOEN AZTERKETARAKO GALDEKIZUNA	57
III. KLASERAKO LAGUNGARRIAK	67
III.1. Klaseen azalpen orria	69
III.2. Jarraipen-kurba	70

AURKEZPENA

LEHEN ARGITARALDIAREN AURKEZPENA

Hizkuntzak, edozeinek dakienez, elementu desberdinez osaturiko sistemak dira, sistema konpleju eta aberatsak. Jaiotzatikakoek berek ere nahiko lan izaten dute beren hizkuntzaren aberastasunetan aurrera egiteko. Hizkuntzak nahiko ondo menderatu arren, beti geratzen dira oraindik eskuratu gabeko hitzak, esae-rak, errejistro motak...

Zer esan, beraz, bigarren nahiz kanpoko hizkuntza ikasten saiatzen direnez?

Den-dena bapatean inola ere ikasi ezin dutenez, AUKERATU eta mugatu egin behar dela kasuan kasuko ikasleek hizkuntza horretatik zer behar duten. Nolako eta zein elementu diren beren helburuetarako beharrezko direnak. Aukera hori, noski, erizpide diferenteen arabera egin daiteke: gramatika atalak aukeratu, hiztegiak mugatuz, situazioak zerrendatuz (eskolan, etxean, tabernan, deportean etabarrean mintzatzeko behar dena) edota funtzioak deskribituz (norberaren aurkezpena; gustoen, gogoen, haserrearen etabarren adierazpena; informazio eskea...).

Azken urteotan, hizkuntz klaseen edukina ikasleek bete behar dituzten funtzioen arabera aukeratu eta mugatzeko joera dago. Horiei, ordea, edukin linguistiko-a erantsi behar zaie eta horretarako aurreko urteetan egiten zen aukeratzeko linguistiko hutsa ez da erabat alferrikako gertatuko.

Euskarari dagokionez funtzioen sistematzeko lanak hasi berriak dira. Oraintxe gaude berorien abiadan. Hiztegi mugaketak eginak daude, intuizioz bederen, metodo eta bestelako testu aplikatuetan; oinarri zientifikoetan bildutako hiztegi aukeratuak ere bidean datoz... Elementu gramatikalen aukera, ordea, nahiko lan-dua dago, joera audiolingualari jarraiki zaizkion hainbat metodotan batez ere.

Orain, euskara klaseen edukina aukeratzeko bide berriak urratzen ari diren honetan, egoki gerta daiteke gero han eta hemen, horrela edo bestela, sartu beharko den edukin gramatikala zerrenda argi eta erosoetan aurkeztea. Horixe da gure asmoa.

Gaia aukeratu ondoan, ordea, ORDENATU egin behar da, ardatz gisa gramatika hartzen bada batez ere (situazioei edo funtzioei dagokienez, ordenak ez du hainbateko garrantzirik) ikasleak sinpletik beteagora eta errazetik zailera igaro daitezten. Hemen dute lekua gure artean horren ezagunak diren mailak, gehiengotan gramatikaren inguruan mugatuak. Erizpideak ere ezagunak dira: sinpletasuna, maiztasuna, zailtasuna...

Ordenatze hori bera ere estua edo lasaia izan daiteke: urratsez-urrats, pausu txiki bakoitza neurtuz, sailka daiteke edukin guztia edota hiruzpalau multzo nagu-

si diseinatu hutsez, bakoitzeko edukina nultzo gisa eta inongo ordenarik gabe ematen delarik.

Horrelakoa da liburuska honetan aurkezten dena.

Programa, gramatika baztertu gabe ere, bestelako ardatzen inguruan erai-
kitzen denean, gramatika elementuen ordena lasaiagotu egiten da, garrantzia
galtzen duelarik.

Liburuska honetan beraz, besteak bestetarako utziz, euskara ikasleek, haste-
ko bederen, ikasi behar dituzten elementu gramatikalen aukera duzu eta berorien
ordenazio nagusi eta lasaia. Bai, zuzenean, gramatikan oinarritutako programen
bai, zeharka, bestelakoen zerbitzuan gerta daitezkeenak.

Ikasle askok, azkenik, euskara ikaste bidean «non» dagoen jakin nahi izaten
du. Galdera horrek, berriro ere, erantzun diferenteak ditu: ezagupenei buruz ari
diren galdegin dakieke ala trebetasunez? Nolako trebetasunak neurtu nahi dituz-
te: hizkuntzan zentratuak ala funtzioei dagozkienak? Gure artean, orain arteko
metodoetan bederen eta mintzamenari dagokionez, elementu gramatikalak hartu
ohi dira neurgai gisa. Hori ere aldatzen joango da, baina bitartean komeni zen
metodo eta bide diferentetatik ari zirenek erreferentzia bakarra eta garbia izan
zezaten. Hori ere eskaintzen saiatu gara liburuska honetan.

Hona, beraz, ikasle, irakasle, metodogile etabarren zerbitzuan programa ez,
programa aurreko materiala baizik.

Liburuskaren bigarren parteak metodoak eta material didaktikoa deskribitu
eta ebaluatzeko bidea, besteren artean bat, eskaintzen du. Metodoen alderdiak
–egokiak eta desegokiak; hobeto esan, honetarako edo horretarako egokiak eta
desegokiak– antzematen lagundu dezake galdekizun horrek.

Hirugarren partean, eraskin gisa, irakasleak klaseak ongi prestatzeko eta
bere lan didaktikoaren norabidea kontrolatzeko balio dezaketen sistema batzuk
aurkezten dira. Hain zuzen klaseen azalpen-orria eta ikasleen jarraitasun kurba.

Euskara Zerbitzua

BIGARREN ARGITARALDIAREN AURKEZPENA

Agian alferrikakoa irudi lezake korritzen duten garai hauetan, hizkuntzen irakaskuntza honenbeste berritzen ari den urteotan alegia, mailaketa gramatikal bat argitaratzeak. Eta zer esanik ez lehenagotik ere argitaratua baldin badago, modu eskasago batean izan bazen ere ordukoa, Glotodidaktika Lanak delako kolekzio honetan bertan.

Mailaketa Gramatikalaren justifikazioa aski azaldua dago Lehen Argitaraldiko Aurkezpenean, eta ordutik hona urte batzuk igaroak izan arren azalpenak balio duelakoan gaude, eta balioko seguraski beste apur baterako.

Bigarren Argitaraldia egitearen arrazoi nagusiak bi izan dira. Alde batetik lehenengoa agortua izatea eta bestetik mailaketa honek izan duen nolabaiteko oihartzuna. Liburuska honen eragina nabaria izan da, esate baterako, Batxilergoko Erdaldunentzako Euskara Programan¹, HABEren euskalduntze urratsetan² eta beste zenbait programaziotan.

Agian bere «hurrek» irentsia geldituko da mailaketa hau, baina aurreko aurkezpenean esaten den bezala hau ez da «programazio berri baten proposamena», programazio desberdinen gainerakako (edo azpitikako) «mailaketa orokorrago bat» baizik, «erreferentzia bat», non edukin zehatzak aukeran agertzen diren, gero erabiltzaile bakoitzak nahi duen moduan ordenatzeko eta nahi duen didaktikaz irakasteko.

Beude hortxe, beraz, bai mailaketa, bai gainerako «abar» didaktikoak –hain zuzen Metodoen Azterketarako Galdekizuna, Klaseen Azalpen Orria eta Jarraipen Kurba- oinarritzko irakaskuntz material bezala, irakasleak, eguneroko lan tresna izango ez baditu ere, behar duenean kontsulta ditzan.

1. Euskal Hizkuntza eta Literatura BBB-n, Eusko Jaurlaritza, 1982.

2. Helduen euskalduntzea programatzen-84, HABE, 1984.

I. MAILAKETA GRAMATIKALA

Uste zaharra da euskara ikasi ezineko hizkuntza zela txikitatik ez zekite-
nentzat. Beste hizkuntzak baino zailagoa eta arkaikoagoa omen zen. Erdaldun
batek sekula menperatuko ez zituen aditz forma kontaezinekin.

Konturatzen joan ginen, bai, zenbait jende euskara ikastera eta erabiltzera
iristen zela. Baina jende jakintsua zen edota inguru guztiz euskaldun batek ikas-
tea beste irtenbiderik uzten ez ziona. Eta halere nahikoa kostatzen zitzaien!

Urteak joan, urteak etorri, gauzak aldatzen joan zaizkigu eta jende kopuru
politak bereganatu du euskara, beste askoren harriduraren aurrean.

Alabaina hizkuntza bat ikasteko bidea luzea da. Ez da goizetik gauera ikas-
ten. Ezin dugu gure gizartea euskara dakitenean eta ez dakitenean artean banatu.
Badira hor tartean piska bat dakitenak, ulertzeko gai direnak, okerrekin bada ere
mintzatzen direnak etab. Batzuk aurrera doazenak, ikasten ari direnak, eta bes-
teak berriz atzeraka, lehendik zekitena ahazten, alegia.

Argi dago beraz hizkuntza bat pausoka, urratsez, ikasten dela eta ondo
mintzatzen denak ere baduela zer ikasi aski. Ikaskuntza amaigabea dela, hortaz.
Ikasleari 2. hizkuntza irakasteko, ordea, oinarritzkoena eta behar-beharrezkoena
eman beharko diogu lehenik. Corpus hori mugatzeko erizpide gramatikala izan
da erabiliena, eta orain funtzionala ere indartuz ari da. Ondoko orrialdeetan
aurkezten den mailaketa, ageri denez, lehenengoari jarraituz egin da.

Baina zertarako euskararen mailaketa bat? Metodoek badituzte beren mai-
lak. Ikasleak maila horien arabera edo ikastetxe bakoitzeko praktika jarraituz
sailkatzen dira. Beharrezkoa izaten da, ordea, mailaketa ezberdin horien gainetik,
erreferentzia berdintsu bat, zenbait gauzatarako behintzat, hau da, mailaketa
orokorrago bat. Esate baterako metodo ezberdinez ikasitako ikasleen maila alde-
ratzeko, irakurgai mailakatueterako etab. Orobat, programa konkretu bat fin-
katzeko orduan ere honelako mailaketa batek lagun dezake.

Zatiketa hau egiteko ez gara huts-hutsetik abiatu. Ez dugu mailaketa ideal
bat burutu. Euskara ikasteko metodo erabilienak hartu ditugu oinarritzat¹. Ba-
koitzaren progresio gramatikala aztertu, gero erkatu, eta azkenik komun samarra
den mailaketa osatu. Alde honetatik esan daiteke, nahiko gertutik jarraitzen
dituela gela askotan ematen diren edukinak. Horrez gain, ulermen mailan be-
hintzat ikaslearentzat ezagunak izatea komeni den zenbait puntu sartu dugu.

Hiru maila handi egin dira, metodoen progresio partikularrak horretara bildu
nahirik. Maila bakoitzaren barruan hiru zutabe berezten dira. Lehenengoa Izen

1. Euskalduntzen, Hitz Egin, Jalgi Hadi, Euskera bizitik, Euskara Mailaka, Jo ta ke...

Sintagma. Bertan izena, izenordeak, adberbioak, posposizioak etabar sartzen dira, eta horien deklinabidea. Bigarrena Aditzari zuzendua dago, eta hirugarrena Sintaxiari.

Komeni da argi uztea, baita ere, maila bakoitzaren barruko puntu zehatzak erizpide gramatikal hutsez ordenatuak daudela, eta ez didaktikoki. Sozietiboa lnesiboaren aurretik ipintzeak, edo 'Nor-Nork' 'Nor-Nori-Nork'-en aurretik, ez du inolaz ere esan nahi ordena horretan irakatsi behar direnik. Aukera hori metodo edo irakasle bakoitzak egiten du. Hau ez da, beraz, progresio berri baten proposamena.

Aurkezterakoan, lehenik **Mailaketa orokorra** agertzen dugu. Maila bakoitzean sartzen diren edukinak begiratu batez ikusteko modukoa. Horren atzetik **Mailaketa zehaztua**, lehen aipatutako ikas puntuak xeheki desarroilatzen dituen bakoitzean zer irakas daitekeen azalduz.

Eraskin gisa ia inoiz programatzen ez diren **Ohizko esaera** batzuk ipini ditugu, zerranda interesgarria eta euskaldun berriarentzat laguntza handikoa izango delakoan.

I.1. MAILAKETA OROKORRA

Hau da proposatzen dugun mailaketaren muina eta mamia. Lehenengo mailan euskararen elementu oinarrizkoenak erakutsi nahi zaizkio ikasleari: kasu beharrezkoak, perpaus bakunak eta aditz errazenak. Halere, erabil dezakeena baino gehiago ezagutu behar du ikasleak. Horregatik, ulermen mailan erantsi ditugu funtsezkoak diren zenbait puntu: Datiboa, Lehenaldiko adizki beharrezkoenak, Esaldi konpletiboak, Zehar-galderak etab. Horrek esan nahi du, bai irakurgaietan, bai irakaslearen ahotan, ager daitezkeela moeta horietako egiturak, nahiz intentsiboki ez landu.

Bigarren mailan Orainaldiko NOR-NORK eta Nor-Nori-Nork sartzen dira, eta Menpeko Perpaus garrantzitsuenak.

Hirugarrenean berriz: Mugagabea; lehenaldiko Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork; Aginterazko, Ahalezko eta Baldintzako forma erabilgarrienak etab.

I. MAILA

I. IZEN SINTAGMA	I. ADITZA	I. SINTAXIA
<p>NOMINATIBOA (NOR)*</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Izen bereziak, arruntak sg. pl. ● Erakusleak ● Pertsonalak ● Galdetzaileak ZER-ZEIN-NOR NOLAKO (A)... <p>ERGATIBOA (NORK) sg. pl.</p> <p>PARTITIBOA Mgg.</p> <p>GENITIBO EDUTEZKOA (NOREN) sg. pl.</p> <p>SOZIATIBOA (NOREKIN) sg. pl.</p> <p>INESIBOA (NON) sg.</p> <p>GENITIBO LEKU-DENBORAZKOA (NONGO) sg.</p> <p>ADLATIBOA (NORA) sg.</p> <p>ABLATIBOA (NONDIK) sg.</p> <p>NOIZ: astelehenean, berandu...</p> <p>ZENBAT (Zenbakiak)</p> <p>NOLA: Ondo, aspertuta...</p> <p>POSPOSIZIOAK: Ondoan, gainean...</p> <p>PARTIKULAK: Ere, gabe...</p> <p>Ulermen mailan</p> <p>DATIBOA (NORI) sg.</p>	<p>NOR</p> <p>Indikatibozko orainaldia</p> <p>NAIZ...</p> <p>NAGO</p> <p>NOA</p> <p>NATOR</p> <p>NABIL</p> <p>NOR-NORK</p> <p>Indikatibozko orainaldia</p> <p>DUT/ditut</p> <p>DAUKAT/dauzkat</p> <p>ADITZ LOKUZIOAK</p> <p>Bizi izan</p> <p>Balio izan</p> <p>Ari izan</p> <p>Nahi izan</p> <p>Behar izan</p> <p>Ahal izan</p> <p>Ezin izan</p> <p>ASPEKTOA</p> <p>Orainaldi burutugabea</p> <p>Orainaldi burutua</p> <p>Ohiturazko orainaldia</p> <p>Geroaldia</p> <p>AGINTEZKOAK</p> <p>Itxi! Etorri!</p> <p>Ulermen mailan</p> <p>DIOT</p> <p>ZAIT</p> <p>NINTZEN</p> <p>NUEN</p>	<p>PERPAUS BAKUNA</p> <p>Baiezkoak</p> <p>Ezezkoak</p> <p>Galdezkoak</p> <p>Agintezkoak</p> <p>PERPAUS KONPOSATUA</p> <p>Kopulatiboak ETA</p> <p>Adbertsatiboak BAINA</p> <p>Disjuntiboak EDO, ALA</p> <p>GALDEGAIA</p> <p>Galdegaia aditza ez denean</p> <p>Ulermen mailan</p> <p>Konpletiboak -eLA</p> <p>-T(Z)EKO</p> <p>Zehargaldera -eN</p> <p>Kausala -eLAKO</p>

* Deklinabide kasu guztietan antzeko puntuak ipin daitezke. Hemen eredu gisa ematen dira nominati-
boan. Beste kasuetan izen arrunten numeroa bakarrik zehazten da.

III. MAILA

III. IZEN SINTAGMA	III. ADITZA	III. SINTAXIA
ADLATIBO BIDE ZUZENEKOA (NORANTZ) sg. pl.	NOR Indikatibozko lehenaldia	DENBORAZKOAK -eN BITARTEAN
ADLATIBO DESTINATIBOA (NORAKO) sg. pl.	NENGOEN	ARTE
INESIBOA (NORENGAN) sg. pl.	NENTORREN	ORDUKO / BEZAIN LASTER
ADLATIBOA (NORENGANA) sg. pl.	NINDOAN	-T(Z)ERA KOAN
ABLATIBOA (NORENGANDIK) sg. pl.	NENBILEN	-eNERAKO
ADLATIBO BIDE ZUZENEKOA (NORENGANAKO) sg. pl.	Ahalezko orainaldia NAITEKE	-eNETIK
ADLATIBO BUKATUZKOA (NORENGAINO) sg. pl.	Agintera ZAITEZ, ZOAZ, ZATOZ, ZAUDE...	-eLA
MOTIBATIBOA (NORENGATIK) sg. pl.	Indikatibozko baldintzak	-eN BAKOITZEN
MUGAGABEA NOIZ ERABILI	BANINTZ	KONPARATIBOAK
NOMINATIBOA (NOR) Mgg.	NINTZATEKE	-eN BEZALA(KO) (A)
ERGATIBOA (NORK) Mgg.	NOR-NORK	-eN MODUAN
GENITIBO EDUTEZKOA (NOREN) Mgg.	Indikatibozko lehenaldia	ADINA + Izena
SOZIATIBOA (NOREKIN) Mgg.	NINDUEN-ZINTUDAN- GINTUZTEN...	BEZAIN + Adjet. /Adber.
DESTINATIBOA (NORENTZAT) Mgg.	Indikatibozko lehenaldia	HELBURUZKOAK
INESIBOA (NON) Mgg.	NEUKAN / neuzkan	-T(Z)EARREN
GENITIBO LEKU-DENBORAZKOA (NONGO) Mgg.	NEKIEN / nekizkien	KAUSALAK
ADLATIBOA (NORA) Mgg.	NEKARREN / nekartzan	-T(Z)EAGATIK
ABLATIBOA (NONDIK) Mgg.	NERAMAN / neramatzan	-eNEZ (GERO)
INDEFINIDOAK: Edozer, Edozein	Ahalezko orainaldia DEZAKET / ditzaket	BALDINTZAZKOAK
Zernahi,...	Agintera EZAZU / itzazu	Baldintza Hipotetikoak
Honenbeste,...	EZAZUE / itzazue	-eZ GERO
Honenbesteko,...	Indikatibozko baldintzak	KONTZESIBOAK
ATZIZKIAK: -ARI; -DUN; -GARRI;	BANU / banitu	NAHIZ ETA
-KA; -KERIA; -KI; -ORO;	NUKE / nituzke	Partizipioa + ARREN
-TAR(-AR); -NA; -TASUN;	NOR-NORI-NORK	BA-...ERE
-TSU; -TU; -TZAILE(-LE);	Indikatibozko lehenaldia	ADBERTSATIBOAK
-ZALE	NION-ZIDAN-GENIZUN...	HALA ETA GUZTIZ
	Indikatibozko baldintzak	HALERE
	BANIO / banizkio	ORDEA
	NIOKE / nizkioke	BERRIZ
		BAIZIK

I.2. MAILAKETA ZEHAZTUA

Mailaketa orokorrean aipatutako puntuak desarroilatzen ditugu hemen. Kasu bakoitza hitz ezberdinei nola lotzen zaien, bakoitzarekin zer galdetzaile erabil daitezkeen, zer aditz forma konkretu dauden, etab. ematen zaigu modu sinple batean.

Adibideek bi xede dituzte. Alde batetik eredu konkretuen bidez ikaspuntuak zein diren argitzea. Esate baterako edukinetan «Erlatibo Nominalizatua: -eNA» azaltzen bada ez dugu agian lehenbizikotik harrapatuko atzizki horren zentzua. Adibideetan begiratu, ordea, ez dago zalantzarik zer esaldi motaz ari garen, Etorri deNA, eta antzekoez alegia.

Beste aldetik nahasgarria izango litzateke kasuistika guztia teorikoki azaltzea. Esate baterako ez ditugu bokalez edo kontsonantez amaitutako hitzak aipatzen, baina badakigu atzizki bat hartzerakoan lotura ezberdinak izaten dituztela. Diferentzia horiek Adibideetan jasoak daude. Ad.: Joseba-ri baina Miren-I. Orobat adizki ezberdinek eragiten dituzten menpeko formak. Ad.: duELA baina duDALA.

I. MAILA

I. IZEN SINTAGMA

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<p>NOMINATIBOA (NOR)</p> <ul style="list-style-type: none"> Izen bereziak, arruntak sg eta pl, adjetiboak* sg eta pl. Erakusleak (izenorde/adjetibo) <ul style="list-style-type: none"> HAU- HORI- HURA- HAUEK- HORIEK- HAI EK Pertsonalak <ul style="list-style-type: none"> NI- (HI)- GU- ZU- ZUEK Galdetzaileak <ul style="list-style-type: none"> ZER- ZEIN- NOR zertzu- zeintzu- nortzu NOLAKO.....-A NOLAKOA NOLAKOAK 	<p>Miren, gizon-A, polit-AK</p> <p>HAU / Emakume HAU</p> <p>NOLAKO autoa? NOLAKOA? txiki-A, gorri-A NOLAKOAK? txiki-AK, gorri-AK</p>
<p>ERGATIBOA (NORK)</p> <ul style="list-style-type: none"> Izen bereziak, arruntak sg eta pl. Erakusleak (izenorde/adjetibo) <ul style="list-style-type: none"> HONEK-HORREK- HARK HAUEK- HORIEK- HAI EK Pertsonalak <ul style="list-style-type: none"> NIK- (HIK)- GUK- ZUK- ZUEK Galdetzaileak <ul style="list-style-type: none"> ZERK- ZEINEK- NORK zertzuk- zeintzuk- nortzuk 	<p>Joseba-K, Miren-EK, haurr-AK, haurr-EK</p> <p>HONEK / Mutil HONEK</p>
<p>PARTITIBOA</p> <ul style="list-style-type: none"> Izen arruntak Mgg. 	<p>zuhaitz-IK, ogi-rik</p>
<p>GENITIBO EDUTEZKOA (NOREN)</p> <ul style="list-style-type: none"> Izen bereziak, arruntak sg eta pl. Erakusleak (izenorde/adjetibo) <ul style="list-style-type: none"> HONEN- HORREN- HAREN HAUEN- HORIEN- HAIEN Posesiboak <ul style="list-style-type: none"> NERE- (HIRE)- GURE- ZURE- ZUEN Galdetzaileak <ul style="list-style-type: none"> NOREN- ZEINEN Nominalizatuak <ul style="list-style-type: none"> NORENA NORENAK 	<p>Joseba-rEN, Miren-EN, zuhaitz-AREN, zuhaitz-EN</p> <p>HONEN / Neska HONEN</p> <p>Norena? Zure-A, Itziarr-eNA Norenak? mutil horren-AK</p>
<p>SOZIATIBOA (NOREKIN)</p> <ul style="list-style-type: none"> Izen bereziak, arruntak sg eta pl. Erakusleak (izenorde/adjetibo) <ul style="list-style-type: none"> HONEKIN- HORREKIN- HAREKIN HAUEKIN- HORIEKIN- HAI EKIN Pertsonalak <ul style="list-style-type: none"> NEREKIN- (HIREKIN)- GUREKIN- ZUREKIN- ZUEKIN Galdetzaileak <ul style="list-style-type: none"> NOREKIN- ZEINEKIN 	<p>Joseba-rEKIN, Miren-EKIN, mutil-AREKIN, mutil-EKIN</p>

*Beste kasuetan ez dugu Adjetiboa aipatu, Izen arrunta bezala jokatzen bait da.

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<p>INESIBOA (NON)</p> <ul style="list-style-type: none"> Izen bereziak, arruntak sg. Erakusleak sg. HONETAN- HORRETAN- HARTAN Adberbioak HEMEN- HOR- HAN Galdetzailea NON 	<p>Bilbo-N, Gasteiz-eN, kale-AN, autobus-eAN kale horretan</p>
<p>GENITIBO LEKU-DENBORAZKOA (NONGO)</p> <ul style="list-style-type: none"> Izen bereziak, arruntak sg. Erakusleak HONETAKO- HORRETAKO- HARTAKO Adberbioak HEMENGO- HORKO- HANGO Galdetzaileak NONGO Nominalizatuak NONGOA NONGOAK 	<p>Bilbo-KO, Gasteiz-KO,* herri-KO, zuhaitz-eKO</p> <p>Nongoa? etxe-koa Nongoak? Eibar-koAk</p>
<p>ADLATIBOA (NORA)</p> <ul style="list-style-type: none"> Izen bereziak, arruntak sg. Erakusleak sg. HONETARA- HORRETARA- HARTARA Adberbioak HONA- HORRA- HARA Galdetzailea NORA 	<p>Bilbo-RA, Gasteiz-A</p>
<p>ABLATIBOA (NONDIK)</p> <ul style="list-style-type: none"> Izen bereziak, arruntak sg. Erakusleak sg. HONETATIK- HORRETATIK- HARTATIK Adberbioak HEMENDIK- HORTIK- HANDIK Galdetzailea NONDIK 	<p>Bilbo-TIK, Gasteiz-TIK, Irun-DIK kale-TIK, autobus-eTIK</p>
<p>NOIZ</p> <ul style="list-style-type: none"> Orduen izenak Egunen izenak Hilabeteen izenak Adberbio eta gisakoak: GOIZ- BERANDU GOIZEAN- ARRATSALDEAN 	<p>Bostak, bostetan</p>
<p>ZENBAT Zenbakiak</p>	<p>Bat, bi, hiru...</p>
<p>NOLA (Zer moduz)</p> <ul style="list-style-type: none"> Adberbio eta gisakoak: ONDO- GAIZKI POZIK, NEKATUTA... 	

* Euskaltzaindiak onartzen ditu honelako formak ere: Gasteiz-eKO, Gasteiz-eRA etab.

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<div data-bbox="245 353 524 399" style="border: 1px solid black; padding: 2px;">POSPOSIZIOAK</div> <p data-bbox="545 365 919 433">ONDOAN, GAINEAN, AURREAN, ARTE...</p>	<p data-bbox="1032 365 1357 399">Etxe ondoan, mahai azpitik...</p>
<div data-bbox="245 498 524 544" style="border: 1px solid black; padding: 2px;">PARTIKULAK</div> <p data-bbox="545 510 672 539">ERE, GABE</p>	<p data-bbox="1032 510 1300 539">lanIK GABE / lan GABE</p> <p data-bbox="1032 551 1305 580">GU ERE gaur etorri gara</p>
<p data-bbox="253 619 516 648">ULERMEN MAILAN</p>	
<div data-bbox="245 675 524 721" style="border: 1px solid black; padding: 2px;">DATIBOA (NORI) sg.</div>	

I. ADITZA

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">NOR</div> <ul style="list-style-type: none"> • Indikatibozko orainaldia (trinkoa/laguntzailea) <ul style="list-style-type: none"> - NAIZ- (HAIZ)- DA- GARA- ZARA- ZARETE- DIRA • Indikatibozko orainaldia (trinkoa) <ul style="list-style-type: none"> - NAGO-(HAGO)- DAGO- GAUDE- ZAUDE- ZAUDETE- DAUDE - NOA- (HOA)- DOA- GOAZ- ZOAZ- ZOAZTE- DOAZ - NATOR- (HATOR)- DATOR- GATOZ- ZATOZ- ZATOZTE- DATOZ - NABIL- (HABIL)- DABIL- GABILTZA- ZABILTZA- ZABILTZATE- DABILTZA 	<p style="text-align: center;">Ni neska NAIZ / Ni joan NAIZ</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">NOR-NORK</div> <ul style="list-style-type: none"> • Indikatibozko orainaldia (trinkoa/laguntzailea) <ul style="list-style-type: none"> - DUT- (DUK/N)- DU- DUGU-DUZU- DUZUE- DUTE DITUT- (DITUK/N)- DITU- DITUGU DITUZU- DITUZUE- DITUZTE • Indikatibozko orainaldia (trinkoa) <ul style="list-style-type: none"> - DAUKAT- (DAUKAK/N)- DAUKA- DAUKAGU- DAUKAZU- DAUKAZUE-DAUKATE DAUZKAT- (DAUZKAK/N)- DAUZKA- DAUZKAGU- DAUZKAZU- DAUZKAZUE- DAUZKATE 	<p style="text-align: center;">Zuk presa DUZU / Zuk JAN DUZU</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">ADITZ LOKUZIOAK</div> <div style="text-align: center; padding: 0 20px;"> <p>BIZI IZAN</p> <p>BALIO IZAN</p> <p>(an/t(z)en+) ARI IZAN</p> <p>(Partizipioa+) NAHI IZAN</p> <p>(Partizipioa+) BEHAR IZAN</p> <p>(Partizipioa+) AHAL IZAN</p> <p>EZIN IZAN (+Partiz.)</p> </div>	<p style="text-align: center;">BIZI NAIZ</p> <p>BALIO DU</p> <p>jolaseAN/ jolasTEN ARI DA</p> <p>ogia (jan) NAHI DU</p> <p>ura (hartu) BEHAR DU</p> <p>ikusi AHAL DUT. Joan AHAL NAIZ</p> <p>EZIN DUT ikusi. EZIN NAIZ joan</p>

EDUKINAK		ADIBIDEAK
ASPEKTOA		
Aditz izenkiak	(Partizipioa; -T(Z)EN; -KO)	Sartu- Sartzen- Sartuko Ikusi- Ikusten- Ikusiko
Indikatibozko	ORAINALDI BURUTUGABEA ORAINALDI BURUTUA OHITURAZKO ORAINALDIA GEROALDIA	Sartzen ari naiz Ikusten ari naiz Sartu naiz Ikusi dut Sartzen naiz Ikusten dut Sartuko naiz Ikusiko dut
AGINTEZKOAK	(jokatu gabe)	Etorri! Hartu!
ULERMEN MAILAN	- ZAIT-ZAIO... - DIOT-DIO... - NINTZEN-ZEN... - NUEN-ZUEN...	

I. SINTAXIA

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<p data-bbox="293 743 690 789">PERPAUS BAKUNA</p> <p data-bbox="589 818 734 936">Baiezkoak Ezezkoak Galdezkoak Agintezkoak</p>	<p data-bbox="1070 814 1341 932">Neska IKUSI DUT EZ DUT neskarIK IKUSI NeskarIK ikusi duzu? Atea Itxi!</p>
<p data-bbox="293 997 690 1043">PERPAUS KONPOSATUA</p> <p data-bbox="589 1072 862 1156">Kopulatiboak: ETA Adbertsatiboak: BAINA Disjuntiboak: EDO, ALA</p>	
<p data-bbox="293 1215 571 1261">GALDEGAIA</p> <p data-bbox="589 1263 917 1290">Galdeagaia aditza ez denean</p>	<p data-bbox="1070 1258 1360 1285">Eskolara GAUR hasi gara</p>
<p data-bbox="293 1324 550 1351">ULERMEN MAILAN</p> <p data-bbox="589 1353 873 1471">Konpletiboak: -eLA -T (Z) EKO Zehalgaldera: -eN Kausala: -eLAKO</p>	<p data-bbox="1070 1353 1289 1471">Egia deLA JoaTEKO esan du Ez datik etorri deN Zaharra deLAKO</p>

II. MAILA

II. IZEN SINTAGMA

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">DATIBOA (NORI)</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Izen bereziak, arruntak sg. eta pl. ● Erakusleak (izenorde/adjetibo) <ul style="list-style-type: none"> HONI- HORRI- HARI HAUEI- HORIEI- HAIEI ● Pertsonalak NERI- (HIRI)- GURI- ZURI- ZUEI ● Galdetzaileak NORI, ZEINI, ZERI 	<p>Joseba-ri, Miren-I, haurr-ARI haurr-EI</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">INSTRUMENTALA (ZERTAZ- ZEREZ- NOLA)</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Izen arruntak Mugagabeen 	<p>Ardo-Z, tren-eZ</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">ZEREZKO</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Izen arruntak 	<p>harri-ZKO, egurr-eZKO</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">INESIBOA (NON)</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Izen arruntak, pl. ● Erakusleak pl. HAUETAN- HORIETAN- HAIETAN 	<p>Mendi-ETAN, zuhaitz-ETAN</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">GENITIBO LEKU-DENBORAZKOA (NONGO)</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Izen arruntak, pl. ● Erakusleak pl. HAUETAKO- HORIETAKO- HAIETAKO 	<p>Mendi-ETAKO, zuhaitz-ETAKO</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">ADLATIBOA (NORA)</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Izen arruntak, pl. ● Erakusleak pl. HAUETARA- HORIETARA- HAIETARA 	<p>Mendi-ETARA, zuhaitz-ETARA</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">ABLATIBOA (NONDIK)</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Izen arruntak, pl. ● Erakusleak pl. HAUETATIK- HORIETATIK- HAIETATIK 	<p>Mendi-ETATIK, zuhaitz-ETATIK</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">DESTINATIBOA (NORENTZAT)</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Izen bereziak, arruntak sg. eta pl. ● Erakusleak (izenorde/adjetibo) <ul style="list-style-type: none"> HONENTZAT- HORRENTZAT-HARENTZAT HAUENTZAT- HORIENZAT- HAIENZAT ● Pertsonalak NERETZAT- (HIRETZAT)- GURETZAT- ● Galdetzaileak ZURETZAT- ZUENTZAT NORENTZAT, ZEINENTZAT 	<p>Joseba-rENTZAT, Miren-ENTZAT, ume-ARENZAT, ume-ENTZAT</p>

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<div data-bbox="310 283 911 331" style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">ADLATIBO BUKATUZKOA (NORAINO)</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Izen bereziak, arruntak sg. eta pl. ● Erakusleak: HONETARAINO- HORRETARAINO- HARTARAINO HAUETARAINO- HORIETARAINO- HAIETARAINO ● Adberbioak HONAINO- HORRAINO- HARAINO ● Galdetzaileak NORAINO 	<p>Bilbo-RAINO, Gasteiz-AINO mendi-RAINO, zuhaitz-eRAINO, mendi-ETARAINO</p>
<div data-bbox="310 635 711 682" style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">IZENORDE INDEFINIDOAK</div> <p style="text-align: center;">(EZ+) INOR- EZER- INON- INOIZ (+EZ) NORBAIT- ZERBAIT- NONBAIT- NOIZBAIT</p>	<p>Ez dut inor ikusi/ Inor ez dut ikusi</p>
<div data-bbox="310 834 711 882" style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">GRADU MARKAK</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Adjetibo eta adberbioetan <ul style="list-style-type: none"> - EN - EGI - AGO 	<p>handi-EN handi-EGI handi-AGO</p>
<div data-bbox="310 1095 711 1143" style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">GRADUATZAILEAK</div> <p style="text-align: center;">HONEN- HORREN- HAIN</p>	<p>HORREN txikia</p>
<div data-bbox="310 1265 711 1313" style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">ADBERBIOAK</div> <p style="text-align: center;">HONELA- HORRELA- HALA</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Nominalizatuak HONELAKO- HORRELAKO- HALAKO 	<p>HORRELA ibiltzen da HORRELAKO gizona</p>
<div data-bbox="310 1469 711 1517" style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">INTENTSIBOAK</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Adberbioak HEMENTXE- HORTXE- HANTXE HONELAXE- HORRELAXE- HALAXE ● Pertsonalak BERA- BERAK BERE- (BEREN) 	<p>BERAK egin du BERE autoa saldu du</p>

II. ADITZA

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">NOR</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Indikatibozko lehenaldia (trinkoa/laguntzailea) NINTZEN- (HINTZEN)- ZEN- GINEN- ZINEN- ZINETEN- ZIREN 	Txikiak GINEN/Kalera JAITSI GINEN
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">NOR-NORI</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Indikatibozko orainaldia (laguntzailea) – ZAIT- (ZAIK/N)- ZAIO- ZAIGU- ZAIZU- ZAIZUE- ZAIE/ ZAIZKIT... ● Indikatibozko lehenaldia (laguntzailea) – ZITZ AidAN- (ZITZAIAN/NAN)- ZITZAI ON- ZITZAI GUN- ZITZAI ZUEN- ZITZAI EN/ ZITZAI ZKIDAN... 	Boltsa lurrera ERORI ZAIT
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">NOR-NORK</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Indikatibozko lehenaldia (trinkoa/laguntzailea) – NUEN- (HUEN)- ZUEN- GENUEN- ZENUEN- ZENUTEN- ZUTEN/ NITUEN... ● Indikatibozko orainaldia (laguntzailea) – (NAUK/N)- NAU- NAUZU- NAUZUE- NAUTE (GAIUK/N)- GAITU- GAITUZU- GAITUZUE- GAITUZTE ZAITUT- ZAITU- ZAITUGU- ZAITUZTE ZAITUZTET- ZAITUZTE- ZAITUZTEGU- ZAITUZTE (TE) (HAUT...) ● Indikatibozko orainaldia (trinkoa) – DAKIT- (DAKIK/N)- DAKI- DAKIGU- DAKIZU- DAKIZUE- DAKITE/ DAKIZKIT... – DAKART- (DAKARK/N)- DAKAR- DAKARGU- DAKARZU- DAKARZUE- DAKARTE/ DAKARTZAT... – DARAMAT- (DARAMAK/N)- DARAMA- DARAMAGU- DARAMAZU- DARAMAZUE- DARAMATE/ DARAMATZAT... 	Galtzak NITUEN/EZ NITUEN galtzak EROSI

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<div data-bbox="298 347 695 394" style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">NOR-NORI-NORK</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Indikatibozko orainaldia (laguntzailea) <ul style="list-style-type: none"> - DIOT - (DIOK/N) - DIO - DIOGU - DIOZU - DIOZUE - DIOTE DIET - (DIEK/N) - DIE - DIEGU - DIEZU - DIEZUE - DIETE (DIDAK/N) - DIT - DIDAZU - DIDAZUE - DIDATE (DIGUK/N) - DIGU - DIGUZU - DIGUZUE - DIGUTE DIZUT - DIZU - DIZUGU - DIZUTE DIZUET - DIZUE - DIZUEGU - DIZUETE (DIAT/ DINAT...)/ DIZKIOT... <div data-bbox="298 864 695 911" style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">ASPEKTOA</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Indikatibozko LEHENALDI BURUTUGABEA <ul style="list-style-type: none"> LEHENALDI BURUTUA OHITURAZKO LEHENALDIA IRAGAN ONDOKOA <p>ULERMEN MAILA NION-ZION-GENION...</p>	<p>Sartzen ari nintzen. Ikusten ari nintzen</p> <p>Sartu nintzen. Ikusi nuen</p> <p>Sartzen nintzen. Ikusten nuen</p> <p>Sartuko nintzen. Ikusiko nuen</p>

II. SINTAXIA

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">PERPAUS KONPLETIBOAK</div> <p>Baiezkoa -eLA Ezezkoa -eNIK Agintezkoa -T(Z)EKO</p>	deLA, dueLA, dudaLA... deNIK, dudaNIK... Amak joaTEKO esan du
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">ZEHARGALDERAK</div> <p style="text-align: center;">-eN</p>	Ez dakit zer ordu deN
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">BESTE SUSTANTIBOAK</div> <p style="text-align: center;">-T(Z)EA -T(Z)ERIK</p>	JaTEA ona da Ez dut joaTERIK
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">KAUSALAK</div> <p style="text-align: center;">-eLAKO ETA BAIT</p>	Berandu deLAKO Berandu da ETA Berandu BAIT da
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">MODUZKOAK</div> <p style="text-align: center;">-TZEN -eZ Partizipioa + -riK -TA</p>	IkasTEN igaro dut gaua Makila hartuZ Panorama ikusiriK Panorama ikusiTA
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">ERLATIBOAK</div> <p style="text-align: center;">-eN -TAKO Nominalizatuak -eNA -TAKOA Deklinatuak -eN + Deklinabide atzizkiak -TAKO</p>	Etorri deN mutila EtorriTAKO mutila Etorri deNA EtorriTAKOA Etorri deNAK/deNARI/denAREN EtorriTAKOAK/ETorriTAKOARI

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<p data-bbox="305 290 699 335">HELBURUZKOAK</p> <p data-bbox="326 353 683 444">Genitiboa -T(Z)ERA -T(Z)EKO -T(Z)EKO</p>	<p data-bbox="1057 353 1292 444">PaseaTZERA noa Autoa ibiITZEKO da IdazTEKO makina</p>
<p data-bbox="305 508 699 553">DENBORAZKOAK</p> <p data-bbox="326 571 740 743">Partizipioa + -T(Z)EAN -eNEAN ETA GERO ONDOREN BAINO LEHEN AURRETIK</p>	<p data-bbox="1057 571 1422 743">Dendan sarTZEAN ikusi zaitut Etorri deNEAN ikusi dut Garbitu ETA GERO kalera irten da Garbitu ONDOREN kalera irten da Irtten BAINO LEHEN garbitu da Irtten AURRETIK garbitu da</p>
<p data-bbox="305 811 699 857">BALDINTZAZKOAK</p> <p data-bbox="326 866 748 898">Baldintza Erreala (BALDIN) BA-... -KO</p>	<p data-bbox="1057 866 1422 898">Etortzen BAZARA afalduKO dugu</p>
<p data-bbox="305 961 699 1006">KONPARATIBOAK</p> <p data-bbox="570 1025 740 1056">BAINO... -AGO</p>	<p data-bbox="1057 1025 1292 1056">Zu BAINO zaharrAGO</p>
<p data-bbox="305 1111 699 1156">GALDEGAIA</p> <p data-bbox="326 1174 773 1233">Aditza Galdegai denean («egin» sartuz) Menpeko Perpausa denean</p>	<p data-bbox="1057 1174 1390 1233">ETORRI <i>egin</i> da HASERRETU DELAKO joan da</p>

III. MAILA

III. IZEN SINTAGMA

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<p>ADLATIBO BIDE ZUZENEKOA (NORANTZ)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Izen bereziak, arruntak sg. eta pl. • Erakusleak HONETARANTZ- HORRETARANTZ- HARTARANTZ- HAUETARANTZ- HORIETARANTZ- HAIETARANTZ • Adberbioak HONANTZ- HORRANTZ- HARANTZ • Galdetzaileak NORANTZ 	<p>Lesaka-RANTZ, tontorr-eRANTZ, mendi-ETARANTZ...</p>
<p>ADLATIBO DESTINATIBOA (NORAKO)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Izen bereziak, arruntak sg. pl. • Erakusleak HONETARAKO- HORRETARAKO- HARTARAKO HAUETARAKO- HORIETARAKO- HAIETARAKO • Adberbioak HONAKO- HORRAKO- HARA KO • Galdetzaileak NORAKO 	<p>Hernani-RAKO, herri-RAKO, mendi-ETARAKO...</p>
<p>INESIBOA (NORENGAN)*</p> <ul style="list-style-type: none"> • Izen bereziak, arruntak sg. pl. • Erakusleak HONENGAN- HORRENGAN- HARENGAN HAUENGAN- HORIENGAN- HAIENGAN • Pertsonalak NEREGAN- (HIREGAN)- GUREGAN- ZUREGAN- ZUENGAN • Galdetzaileak NORENGAN 	<p>Miren-ENGAN, Koldo-rENGAN, mutil-ARENGAN, nesk-ENGAN</p>
<p>ADLATIBOA (NORENGANA)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Izen bereziak, arruntak sg. pl. • Erakusleak HONENGANA- HORRENGANA- HARENGANA HAUENGANA- HORIENGANA- HAIENGANA • Pertsonalak NEREGANA- (HIREGANA)- GUREGANA- ZUREGANA- ZUENGANA • Galdetzaileak NORENGANA 	<p>Miren-ENGANA, Koldo-rENGANA, ume-ARENGANA, ume- ENGANA</p>

* Ume-ARENGAN, ume-ARENGANA ZUREGANDIK, etab. ipini baditugu ere, ontzat emanak daude genitibo gabeko formak ere: ume-AGAN, ume-AGANA, ZUGANDIK...

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<p data-bbox="256 303 652 349" style="border: 1px solid black; padding: 2px;">ABLATIBOA (NORENGANDIK)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="256 376 613 403">● Izen bereziak, arruntak sg. pl. <li data-bbox="256 437 862 523">● Erakusleak HONENGANDIK- HORRENGANDIK- HARENGANDIK- HAUENGANDIK- HORIENGANDIK- HAIENGANDIK <li data-bbox="256 528 805 607">● Pertsonalak NEREGANDIK- (HIREGANDIK)- GUREGANDIK- ZUREGANDIK- ZUENGANDIK <li data-bbox="256 612 634 639">● Galdetzaileak NORENGANDIK 	<p data-bbox="1036 371 1328 430">Miren-ENGANDIK, Koldo-rENGANDIK</p>
<p data-bbox="256 739 854 784" style="border: 1px solid black; padding: 2px;">ADLATIBO BIDE ZUZENEZKOA (NORENGANAKO)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="256 811 659 839">● Izen bereziak, arruntak sg. eta pl. <li data-bbox="256 932 886 1018">● Erakusleak HONENGANAKO- HORRENGANAKO- HARENGANAKO- HAUENGANAKO- HORIENGANAKO- HAIENGANAKO <li data-bbox="256 1022 829 1102">● Pertsonalak NEREGANAKO- (HIREGANAKO)- GUREGANAKO- ZUREGANAKO- ZUENGANAKO <li data-bbox="256 1106 647 1134">● Galdetzaileak NORENGANAKO 	<p data-bbox="1036 807 1292 925">Jon-ENGANAKO, Jone-rENGANAKO, andre-ARENGANAKO, andre-ENGANAKO</p>
<p data-bbox="256 1192 854 1238" style="border: 1px solid black; padding: 2px;">ADLATIBO BUKATUZKOA (NORENGAINO)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="256 1265 613 1292">● Izen bereziak, arruntak sg. pl. <li data-bbox="256 1385 902 1503">● Erakusleak HONENGAINO- HORRENGAINO- HARENGAINO HAUENGAINO- HORIENGAINO- HAIENGAINO <li data-bbox="256 1508 846 1587">● Pertsonalak NEREGAINO- (HIREGAINO)- GUREGAINO- ZUREGAINO- ZUENGAINO <li data-bbox="256 1592 659 1619">● Galdetzaileak NORENGAINO 	<p data-bbox="1036 1261 1302 1378">Jon-ENGAINO, Jone- rENGAINO, andre-ARENGAINO, andre-ENGAINO</p>
<p data-bbox="256 1669 652 1714" style="border: 1px solid black; padding: 2px;">MOTIBATIBOA (NORENGATIK)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="256 1748 613 1775">● Izen bereziak, arruntak sg. pl. <li data-bbox="256 1839 992 1925">● Erakusleak HONENGATIK- HORRENGATIK- HARENGATIK HAUENGATIK- HORIENGATIK- HAIENGATIK <li data-bbox="256 1930 927 1989">● Pertsonalak NEREGATIK- (HIREGATIK)- GUREGATIK- ZUREGATIK- ZUENGATIK <li data-bbox="256 1993 618 2020">● Galdetzaileak NORENGATIK 	<p data-bbox="1036 1748 1393 1839">Jon-ENGATIK, Ane-rENGATIK, mutil-ARENGATIK, eguraldi-ARENGATIK, nesk-ENGATIK</p>

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<p data-bbox="261 319 656 365">INDEFINIDOAK</p> <p data-bbox="355 392 971 546">(izenorde/adjetibo) EDOZER- EDOZEIN- EDONOR- EDONON- EDONOIZ ZERNAHI- ZEINAHÍ- NORNAHI- NONAHI- NOIZNAHI HONENBESTE- HORRENBESTE- HAINBESTE HONENBESTEKO- HORRENBESTEKO-HAINBESTEKO</p>	<p data-bbox="1036 419 1344 546">EDOZER gauzarekin NORNAHIK daki hori HORRENBESTE makina HORRENBESTEKO makina</p>
<p data-bbox="261 614 656 659">ATZIZKIAK</p> <p data-bbox="355 675 521 1136">-ARI -DUN -GARRI -KA -KERIA -KI -NA -ORO -TAR (-AR) -TASUN -TSU -TU (-DU) -TZAILE / -LE -ZALE</p>	<p data-bbox="1036 675 1295 1136">pelotari, dendari bizardun, fededun nazkagarri, izugarri harrika, saltoka txorakeria, handikeria biziki, konkretuki zortzina, bina egunoro, asteoro bizkaitar, donostiar anaitasun, handitasun jakintsu, indartsu gizondú, handitu laguntzaile, idazle ardozale, euskaltzale</p>

III. ADITZA

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">NOR</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Indikatibozko lehenaldia (trinkoa) <ul style="list-style-type: none"> – NENGOEN- (HENGOEN)- ZEGOEN- GEUNDEN- ZEUNDEN- ZEUNDETEN- ZEUDEN – NENTORREN- (HENTORREN)- ZETORREN- GENTOZEN- ZENTOZEN- ZENTOZTEN- ZETOZEN – NINDOAN- (HINDOAN)- ZIHOAN- GINDOAZEN- ZINDOAZEN- ZINDOAZTEN- ZIHOAZEN – NENBILEN- (HENBILEN)- ZEBILEN- GENBILTZAN- ZENBILTZAN- ZENBILTZATEN- ZEBILTZAN ● Ahalezko orainaldia (laguntzailea) <ul style="list-style-type: none"> – NAITEKE- (HAITEKE)- DAITEKE- GAITEZKE- ZAITEZKE- ZAITEZKETE- DAITEZKE ● Agintera (laguntzailea) <ul style="list-style-type: none"> – ZAITEZ- ZAITEZTE ● Agintera (trinkoa) <ul style="list-style-type: none"> – ZOAZ- ZOAZTE – ZATOZ- ZATOZTE – ZAUDE- ZAUDETE ● Indikatibozko baldintzak (trinkoa/laguntzailea) ● Baldintza: <ul style="list-style-type: none"> – BANINTZ (BAHINTZ)- BALITZ- BAGINA- BAZINA- BAZINATE- BALIRA ● Ondorioa: <ul style="list-style-type: none"> – NINTZATEKE- (HINTZATEKE)- LITZATEKE- GINATEKE- ZINATEKE- ZINATEKETE- LIRATEKE 	<p style="margin-top: 100px;">haurra BANINTZ/JOANGO BANINTZ</p>

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<div data-bbox="277 290 673 335" style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px;">NOR-NORK</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Indikatibozko lehenaldia (laguntzailea) <ul style="list-style-type: none"> - (NINDUAN/NAN)- NINDUEN- NINDUZUN- NINDUZUEN- NINDUTEN (GINTUAN/NAN)- GINTUEN- GINTUZUN- GINTUZUEN- GINTUZTEN ZINTUDAN- ZINTUEN- ZINTUGUN- ZINTUZTEN ZINTUZTEDAN- ZINTUZTEN- ZINTUZTEGUN- ZINTUZTE(TE)N (HINDUDAN-...) ● Indikatibozko lehenaldia (trinkoa) <ul style="list-style-type: none"> - NEUKAN- (HEUKAN)- ZEUKAN- GENEUKAN- ZENEUKAN- ZENEUKATEN- ZEUKATEN/ NEUZKAN... - NEKIEN- (HEKIEN)- ZEKIEN- GENEKIEN- ZENEKIEN- ZENEKITEN- ZEKITEN/ NEKIZKIEN... - NEKARREN- (HEKARREN)- ZEKARREN- GENEKARREN- ZENEKARREN- ZENEKARTEN- ZEKARTEN/ NEKARTZAN... - NERAMAN- (HERAMAN)- ZERAMAN- GENERAMAN- ZENERAMAN- ZENERAMATEN- ZERAMATEN/ NERAMATZAN... ● Ahalezko orainaldia (laguntzailea) <ul style="list-style-type: none"> - DEZAKET- (DEZAKEK)- DEZAKE- DEZAKEGU- DEZAKEZU- DEZAKEZUE- DEZAKETE/ DITZAKET... ● Agintera (laguntzailea) <ul style="list-style-type: none"> EZAZU- EZAZUE ITZAZU- ITZAZUE ● Indikatibozko baldintzak (trinkoa/laguntzailea) <ul style="list-style-type: none"> Baldintza: <ul style="list-style-type: none"> - BANU- (BAHU)- BALU- BAGENU- BAZENU- BAZENUTE- BALUTE/ BANITU... Ondorioa: <ul style="list-style-type: none"> - NUKE- (HUKE)- LUKE- GENUKE- ZENUKE- ZENUKETE- LUKETE/ NITUZKE... 	<p data-bbox="1062 1460 1344 1521" style="text-align: center;">dirua BANU / IKUSKIKO BANU</p>

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<div data-bbox="207 358 607 403" style="border: 1px solid black; padding: 2px;">NOR- NORI- NORK</div> <ul style="list-style-type: none"> ● Indikatibozko lehenaldia (laguntzailea) <ul style="list-style-type: none"> – (NIAN/NAN)- NION- NIZUN- NIZUEN- NIEN (HIDAN- HION- HIGUN- HIEN) ZIDAN- (ZIAN/NAN)- ZION- ZIGUN- ZIZUN- ZIZUEN- ZIEN GENION- GENIZUN- GENIZUEN- GENIEN ZENIDAN- ZENION- ZENIGUN- ZENIEN ZENIDATEN- ZENIOTEN- ZENIGUTEN- ZENIETEN ZIDATEN- (ZIATEN/NATEN)- ZIOTEN- ZIGUTEN- ZIZUTEN- ZIZUETEN- ZIETEN/ NIZKION- NIZKIZUN... ● Indikatibozko baldintzak (laguntzailea) <ul style="list-style-type: none"> Baldintza: <ul style="list-style-type: none"> – BANIO- (BAHIO)- BALIO- BAGENIO- BAZENIO- BAZENIOTE- BALIOTE/ BANIZKIO... Ondorioa: <ul style="list-style-type: none"> – NIOKE- (HIOKE)- LIOKE- GENIOKE- ZENIOKE- ZENIOKETE- LIOKETE/ NIZKIOKE... 	

III. SINTAXIA

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px; text-align: center;">DENBORAZKOAK</div> <p style="margin-left: 40px;">-eN BITARTEAN Partzipioa + ARTE Partzipioa +ORDUKO/BEZAIN LASTER -T(Z)ERAKOAN -eNERAKO -eNETIK -eLA -eN BAKOITZEAN</p>	<p>Bazkaltzen dueN BITARTEAN Handitu ARTE Sartu ORDUKO / BEZAIN LASTER SarTZERAKOAN joan zeNERAKO joan zeNETIK etxera NINDOALA joaten deN BAKOITZEAN</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px; text-align: center;">KONPARATIBOAK</div> <p style="margin-left: 40px;">(-eN) BEZALA (-eN) BEZALAKO(A) -eN MODUAN ADINA + Izena BEZAIN + Adjetiboa/Adberbioa</p>	<p>Zu (ibiltzen zareN) BEZALA Zu (zaren) BEZALAKOA, Zu BEZALAKO emakumeA Nik egiten dudaN MODUAN Nik zuk ADINA liburu ditut Ni zu BEZAIN gizona naiz</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px; text-align: center;">HELBURUZKOAK</div> <p style="margin-left: 40px;">-T(Z)EARREN</p>	<p>ondo egoTEARREN</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px; text-align: center;">KAUSALAK</div> <p style="margin-left: 40px;">-T(Z)EAGATIK -eNEZ (GERO)</p>	<p>mahia puskaTZEAGATIK janaria ekarri dueNEZ (GERO)</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px; text-align: center;">BALDINTZAZKOAK</div> <p style="margin-left: 40px;">Baldintza Hipotetikoak: (-KO) BA-... -KO -eZ GERO</p>	<p>Etorriko BALITZ ikusiKO LUKE Hori janEZ GERO...</p>
<div style="border: 1px solid black; padding: 2px; margin-bottom: 10px; text-align: center;">KONTZESIBOAK</div> <p style="margin-left: 40px;">-NAHIZ ETA Partzipioa + ARREN BA-... ERE</p>	<p>NAHIZ ETA gutxi idatzi gutxi idatzi ARREN gutxi idatzi BAdu ERE</p>

EDUKINAK	ADIBIDEAK
<div data-bbox="220 342 626 387" style="border: 1px solid black; padding: 2px;"> <p>ADBERTSATIBOAK</p> </div> <p style="margin-left: 40px;"> HALA ETA GUZTIZ HALERE ORDEA BERRIZ BAIZIK </p>	<p> HALA ETA GUZTIZ ez naiz joango HALERE ez naiz joango Gero, ORDEA, eritiz aldatu zen Zuk ez duzu nahi, nik BERRIZ bai Zuk ez duzu egin, nik BAIZIK </p>

1.3. OHIZKO ESAERAK

Puntu gramatikalak zehazki programatzen diren bitartean eguneroko esaera arrunt asko ez dira klasean aipatzen. Hiztegiek ere ezer gutxie balio dute esaera horiek aurkitzeko. Ikasleak astiro-astiro ikasi behar ditu, bati entzunez eta besteari galdeginez. Eta, noski, ikaslea kalean hitz egitera ausartzen ez den horietakoa baldin bada, oso erren geratuko da alor honetan.

Gehienetan erabilera erraza dute eta oso momentu konkretuetarako balio izaten dute klixek hauek. Ez da zaila batzutan gure burua ingelesezko, frantsezko edo beste hizkuntza bateko formulak esaten aurkitzea: Comment allez-vous?, Hellow! etab.

Hizkuntza bat ikasten hasi-berriak gustora erabiltzen ditu horrelakoak. Askotan esaldi oso baten ordean ipini daitezke eta, dudarik gabe, bizitasuna ematen diote hizkuntzari.

Erabilgarrienak bildu ditugu hona, baina horietatik zenbait maizkulaz ipini ditugu, nolabaiteko lehentasun bat ezarri nahian. Batzuk itxiak dira. Beti forma bera erabiltzen da: Eskerrik asko, Zer moduz?... Beste batzuk berriz irekiak. Hitzen bat aldatzen dute: Hau *beroa!*, Hau *hotza!*, Hau *mutila!*...

Adio!	AURRERA!
Adizu!	Auskalo!
Adizue!	AZE (R) <i>mutila!</i>
Ados <i>zaude?</i>	<i>gezurra!</i>
<i>nago</i>	<i>ondo!</i>
<i>dago</i>	<i>gaizki!</i>
....
Agudo!	AZKAR!
AGUR!	BAI BA(DA)!
Ai ene!	BAI <i>goxoa</i>
Ai ama!	<i>ona</i>
ALDE <i>hemendik!</i>	<i>polita</i>
<i>hortik!</i>	<i>handia</i>
Alferrik!
ARRALTSALDE ON;	BAI HORIXE!
Arrazoia duzu	BAI NOSKI!
Aspaldiko!	
Atera hortik	
Aupa	

BAI *motel!*
 jauna!
 andrea!
 BAI ZERA!
 BAIETZ
 BAIETZ *etorri*
 jan
 irabazi!

 Baietz uste dut
 Bai ote?
 Baita zuri ere
 BALE?
 BALE!
 Baliteke!
 BARKA(TU)
 Batere ez
 BEGIRA
 Behar bada
 Behin (batean)
 Behin eta berriz
 Benetan
 Berehala
 BERDIN *DA*
 zait
 zaio!

 Berriro
 Berriz
 Besterik?
 Besterik ez?
 Beste bat!
 Dagoeneko
 DATORREN *astean*
 hilean
 urtean

 Debekatua dago
 Dudarik gabe
 Goxoa
 beroa
 ona... DAGO
 EDERKI!
 Ederra egin duzu!
 Egia!
 Egingo duzu?
 EGON GELDIRIK!
 EGON HOR!
 EGON PIXKAT!
 EGUN ON!
 Ekar(ri) hori!
 ENTZUN!
 54

Erne!
 Esan berriro (mesedez)!
 Eskerrak....eLA!
 ESKERRIK ASKO
 Eskumuinak!
 Etorri *hona*
 azkar
 agudo!
 Euskaraz ba al dakizu?
 Ez adarrrik jo!
 Ez *erre*
 jo
 puskatu
 haserretu!

 Ez *barrerik*
 nigarrik
 hasurik EGIN!
 EZ BA(DA)
 Ez da egia izango!
 Ez da ezer!
 Ez da posible
 Ez da izango!
 Ez dakit (bada)
 Ez du axolarik
 Ez du merezi
 Ez dut uste
 Ez dut ulertzen
 EZ HORIXE
 EZ HORREGATIK
 EZETZ
 Ezetz ba(da)
 Ezetz irabazi
 Ez pentsa
 GABON
 Gainera.....
 Gaixoa!
 Gaizki!
 Gehiegi da!
 Gehienetan
 Geldirik egon!
 Gezurra!
 GERO ETA *ederr*
 handi
 itsusi AGO
 garesti

 GOAZEN
 GOAZEN *etxera*
 halera
 zinaera!

.....
Gogotik ari da
GORA.....!
GORAINTZIAK!
gustatzen *zaizu?*
zait?
gutxi gorabehera
Hala eta guztiz ere
Hara!
Hara eta hona
HARRIGARRIA!
Hartu
HAU *beroa*
lotsa
jendea
.....
Astiro
Poliki
Mantso HITZ EGIN
Hobeto!
Hor konpon!
HORI *mutila*
neska
alferra
.....!
Hori marka!
HORIXE!
Horrenbeste ez
HURRENARTE!
Hurrengorarte
IKUSI ARTE!
Inolaz ere (..ez)
ISILIK (EGON)!
ITXOIN (PIXKAT)!
Itxuraz
Ixo!
Izugarría da!
JAKINA
Kaixo!
Kito
KONTUZ (IBILI)!
KONTXO
Lasai (egon)!
Larri larri
Laster arte!
Lehenbailehen
Lehengo batean
Lotsagabea!

Motel-motel
Mugitu (zaitez)
Aspertuta
Nekatuta
Beteta NAGO
Nahi nuke!
Nahi litzateke!
NAHITA
NAHI GABE
NAHIKOA DA!
Nahi eta nahiez
Nere ustez
Noizean behin
NOLA (esan duzu)?
Nola duzu izena?
Nola esaten da.....?
NOLA ZAUDE?
Nondik joaten da.....ra?
Noski
Nor izan da?
Oker ez banago
On egin!
ONDO *egin duzu*
esan duzu
pentsatu duzu
ONDO IBILI
Ondo pasa
ONGI ETORRI
ONGI IBILLI
Oraintxe bertan
POZIK
Pozten naiz
Presaka nabil
Primeran dago
Sar liteke?
Segi hortik
Seguru!
Seguraski
Tira ba(da)!
TORI
Txintxo ibili
Utzi bakean
Zatoz hona!
Zein da?
Zenbat balio du?
Zenbat da?
ZER ARI ZARA

Zer arraio!
ZER BA(DA)
Zer behar duzu?
Zer egin duzu?
Zer esan duzu?
Zer gertatzen da?

Zer gertatzen zaizu?
ZER MODUZ?
Zer nahi duzu?
Zer zabilta?
ZERGATIK BA(DA)?
ZOAZ PIKUTARA!

II. METODOEN AZTERKETARAKO GALDEKIZUNA

Denok amestu izan dugu euskara irakasteko metodo erraz eta efektiboarekin, jendea gehiegizko lanik gabe euskaratuko zuen batekin. Konturatzen ginen, zegoen materiala eskasa zela eta ez oso pedagogikoa. Gero, piskanaka, piskanaka metodo berriak kaleratzen joan dira, maila ezberdinetarako eta metodologia diferentziaz burutuak. Dударik gabe, asko aurreratu da alor honetan: irudiak integratu dira, hizkuntza mintzatuari garrantzi handiagoa eman zaio, gramatikaltasun hutsa alde batera utzi da, ikus-entzunezko medioak, jokoak, kantak, erabiltzen dira. Gainera, eta zorionez, jende kopuru gero eta handiagoa euskalduntzen ari da urteotan.

Irakaslegoa, ordea, konturatzen joan da, metodoa ez zela euskara ikasteko faktore bakarra, ezta garrantzitsua ere, askotan. Nahiz metodo batekin, nahiz besterekin euskara ikasi duen jendea badago, eta, noski, ondo ikastera iritsi ez dena ere bai.

Badira hor beste aldagai batzuk: ikaslearen motibazioa eta ahalegina, irakaslearen esperientzia, klaseko dinamika, kaleko giroa etab.

Jabetzen hasiak gara, beraz, formula magikorik ez dagoela metodo kontuan. Metodo bat aski ona izanik, gaizki erabiltzen bada ez du behar bezalako fruiturik emango, eta alderantziz.

Hala ere metodoei egin zaizkien kritikak eta oharrak ez dira inoiz sistemati-koak izan. Batzuetan oso puntualak ziren, besteetan subjektiboak edo beste aukera bat maite zutenek egindakoak.

Gu saiatu gara metodoak eta bestelako material osagarriak aztertze-ko ukitu behar diren puntuak paperean ipintzen. Faltako dira zenbait, sobratuko beste batzuk, segurki. Baina metodogintzan aurrera jo nahi badugu, orain arteko lanen ikuspegi zuzena behar dugu ukan.

Irakasleak behin baino gehiagotan irakurri behar luke erabiltzen duen metodoaren hitzaurrea. Egia esan, orrialde horietan ematen diren abiabide didaktikoak funtsezkoak izaten dira, eta kasu batzuetan ez behar bezain zabal eta zehatzak. Haatik, hitz polit horietatik at, gehiago sakondu daiteke metodoan. Eta hori da ondoko galderek ireki nahi luketen bidea.

Galdekizun hau burutzeko ez dugu dena guk asmatu, atzerriko testetan oinarritu gara, ingeles eta frantsesetan*. Han-hemenka galdera eta azterpuntu baliotsuenak ateratzen saiatu gara, gero guzti horri forma eta adaptazio koherentea emateko.

Batez ere:
R.S.A. Cert. TEFL Courses: Teacher-training techniques and problem areas. HILDERSTONE INTERNATIONAL 1980.
Evolution des Options Methodologiques dans l'enseignement des langues C.I.E.P. 1978-79.

Galdera gehienak ulergarriak dira. Halere aipatzen dira gure artean oraindik oso ezagunak ez diren berbak. Hizkuntzaren «funtzioak» (B. 4) adibidez asko izan daitezke: galdetzea, ukatzea, eskaintzea, sentimentu diferenteak adieraztea, aholkuak ematea, agintzea, informazioa eskatzea, zorionak ematea etab. Zerrenda irekia da. Hizkuntzek «funtzio» bakoitzerako forma linguistiko bat baino gehiago izaten dute eskuarki.

«Hurbilketa komunikatiboa» (C. 1) azken urteotako zenbait joera berri biltzen dituen izena da. Garrantzi handia ematen dio komunikazioari eta ikasleak gelan behar duen lehenetsua bultzatzen saiatzen da. Metodologia hauen barnean kokatzen da funtzioen arazoa. «Informazio eskeko ariketak» (D. 10), «eritzi trukatketak» eta horrelakoak erabiltzen dituzte, ariketa gramatikal hutsetatik aldenduz. Dena dela joera berri hauei buruzko xehetasun gehiago aurki daiteke Euskara Zerbitzuak argitaratutako «Hizkuntzen irakaskuntza. Topikoak eta Metodologiak» liburuan.

Galdera batzuen erantzuna erraz soma daiteke, burua gehiegi estautu gabe. Badakigu, esate baterako, orain arteko metodoen hizkuntza eta lexikoa ez dela ikerketa serioetan oinarritu, intuizioan baino (F. 3), edota hizkuntzaren funtzioak, gauza berria direnez, ez direla orain arte kontutan hartu.

Beste zenbait azterpuntu garatzeko, aldiz, datu faltan aurkituko gara. Metodo guztiek ez dute denboraren banaketa berezi bat proposatzen (D. 4) edo ez dute azaltzen zenbat hitz berri sartzen duten (B. 2. 1), etab.

Dena dela, nahiz metodoaren egileek puntu asko ez zehaztu, norberak azter ditzake horiek, delako liburuan. Ez da zaila esate baterako ikasgai bakoitzaren une ezberdinak zehaztea, (C. 4), ikasgai bat edo bi aztertu ondoren, edo metodoan aurkezten diren gaien zerrenda egitea (B. 3. 1)

Azken finean galdekizun hau ez da azterketarako gidoi bat besterik. Aztertzaileak ikusi beharko du zer galdera erantzun eta bakoitzean zanbateraino sakondu.

METODOEN AZTERKETARAKO GALDEKIZUNA

- A. DATU OROKORRAK
- B. EDUKINA
- C. METODOLOGIA
- D. FORMA
- E. HIZKUNTZA
- F. FAKTORE SIKOLOGIKOAK
- G. OHARRAK.

A. DATU OROKORRAK

1. Zer jende motari dago zuzendua?
 - Haurrak (zer adinekoak?)
 - Helduak (ikasleak, langileak...)
2. Norako dago egina?
 - Eskolarako
 - Euskaltegietarako
 - Ikastaro trinkoetarako

...
3. Zer urtetan eman zen argitara?
4. Beste hizkuntzaren batetik itzulia al da?
5. Zenbat mailatan banatzen da?

B. EDUKINA

Programaren azterketa egin, batez ere puntu hauek kontutan harturik:

1. Egiturak
 - 1.1. Zer gramatika puntu eta egitura lantzen dira ikasgaiz ikasgai?
 - 1.2. Nolakoa da progresioa?

– azkarra	– zehatza	– egokia
– mantsoa	– librea	– desegokia
2. Lexikoa
 - 2.1. Zenbat hitz berri sartzen du?
 - ikasgaiko
 - mailako
 - urteko
 - 2.2. Hiztegi aktiboa eta pasiboa bereizten ditu?
 - 2.3. Nolako hitz mota erabiltzen du?
 - neologismoak
 - erderakadak
 - gutxi erabiliak

...
3. Gaiak
 - 3.1. Zer gai edo egoera aurkezten ditu ikasgai bakoitzean?
 - 3.2. Zeren bidez aurkezten ditu gaiak?
 - Elkarrizketak
 - Irakurgaiak (Narrazioak, deskripzioak)
 - Esaldi estrukturalak

4. Funtzioak
 - 4.1. Hizkuntzaren funtzioak kontutan hartzen ditu programazioan?
 - 4.2. Zer funtzio aukeratzen ditu eta nola lantzen ditu?

C. METODOLOGIA

1. Zer metodologia jarraitzen du patipat?
 - Tradizionala
 - Zuzena
 - Audiolinguala
 - audio-orala
 - audio-bisuala
 - Hurbilketa komunikatiboa
2. Zer trebetasun lortu nahi ditu batez ere?
 - Mintzatuaren ulermena
 - Mintzarena
 - Irakurmena
 - Idazmena
3. Zein dira egileen ohar teoriko inportanteenak?
4. Zein dira ikasgai bakoitzaren aldi ezberdinak?
5. Nola erabili behar da klasean konkretuki?

D. FORMA

1. Zer material ditu eta zertaz osatzen da bakoitza?
 - ikaslearen liburua
 - irakaslearena
 - zintak
 - irakurgaiak
 - ...
2. Zein da ikasgaien diseinua? Denak berdintsuak al dira?
3. Materiala klaserako nahikoa da? Behar hainbat dibertsifikatua dago?
4. Nola banatzen du denbora?
 - Klaseordu bakoitzarena
 - Ikasgai bakoitzarena
 - Prozedura osoarena
5. Zeren bidez aurkezten ditu mintza-forma berriak?
 - Elkarriketak
 - Irakurgaiak
 - Paradigmak
 - Irudiak
 - ...
6. Nola praktikatzen da forma berria?
7. Nola irakasten du zentzu gramatikala? eta zentzu lexikala?
8. Nola irakasten du sistema fonologikoa?
 - soinuen ebakera
 - azentua, erritmoa, entonazioa

9. Nolakoak dira elkarrizketak? Honako ezaugarri hauek betetzen dituzte?

- Sineskorra
- Segidakoa
- Sinplea
- Motibatzailea
- Motza
- Ikustagarria

10. Zer ariketa mota erabiltzen du?

- Itzulpenak
- Galde-erantzunak
- Estrukturalak (Errepikaketa, Ordezkapena, Transformaketa...)
- Aribidide komunikatiboak (Informazio eskeko ariketak, korapilodun ariketak, puzzleak...)

11. Nolako irakurgaiak ditu?

- Bereziki idatzitakoak eta mailakatuak
- Egiazkoak erreztaturik
- Egiazkoak

12. Nolako da gainerako materiala?

- Jokoak
- Kantak
- Hiztegia

...

13. Nolabaiteko ebaluatze modurik bai al dakar?

14. Zer irudi moeta ditu?

- adierazkorrak
- esaldi bakoitzerako
- eskasak
- irakurgai oso baterako

...

E. HIZKUNTZA

1. Nolako hurbilketa erabiltzen du hizkuntzaren aurrean?

- formala (estrukturala)
- komunikatiboa
- bien artekoa

2. Zer hizkuntz mota erabiltzen du?

- Ahozkoa
- Arrunta
- Batua
- Idatzia
- Artifiziala
- Euskalkia

3. Zertan oinarritzen da hizkuntza aukeratzeko, antolatze eta mailakatzeko?

- gramatikan
- ikerketetan
- intuizioan

...

F. FAKTORE SIKOLOGIKOAK

1. Materialaren kalidatea

erabilgarritasuna
atsegintasuna (koloreak, umorea...)
etab.

2. Ikaslea motibatzen al du?
3. Lan handia eskatzen al dio irakasleari?
4. Irudiak, testuak, gaiak, kulturalki egokiak al dira?

G. OHARRAK

1. Metodoaren alde onak eta txarrak
2. Beste gauza aipagarriak

III. KLASERAKO LAGUNGARRIAK

Metodologietatik aparte irakasleak behar ditu medio tekniko batzuk ere klaseak prestatzeko, ikasturte, hiru hilabete edo ikastaro trinkoaren amaieran balantzeak egiteko eta ondorioz hurrengo urratsak pentsatzeko.

Datu tekniko hauek ez diote kehenentasuna kendu behar klaseko arazo metodologiko konkretuei baina komeni da, egunero ez bada ere, klaseen plana eta ondorioak idatziz azaltzea.

Horiek eta horien estiloko azalpenak (hitzezkoak edo zenbakizkoak) aprobetxagarriak dira eta gero artxibaturik gorde daitezke egindako lanaren lekuko bezala.

III. 1. KLASEEN AZALPEN-ORRIA

1. Orri honen helburua ez da ikastaroaren azkenerako hainbat datu jakitea soilik. Badu gertuagoko erabilgarritasuna, eguneroko klaseetako, hain zuzen. Irakasle orok, klaseak prestatzean, bertan emango dituen puntu guztiak kuaderno batean idatzi ohi ditu, argiago edo ilunago.

Orri honen xedea klasea ordenaz eta argitasunez prestatzen laguntzea eta emandakoaren berri jasotzea da, hurrengoan jakin dezagun nondik abiatu, eta ikasleak hurbiletik jarrai ditzagun, zeren eta sarritan klasean gertaturiko hainbat puntu aipagarri ahaztu egiten bait zaigu hurrengorako.

Zenbaterainoko zehaztapenak jakin nahi diren, gehiago edo gutxiago erabil daitezke orri hori: egunero, astero, e.a.

2. IKASLE KOPURU TOTALA –KLASERA ETORRITAKOA– JARRAIPEN TASA

Aurrekaldearen goialdean agertzen diren zenbait datuk merezi du gogoan hartzea. Ikasleen jarraipen tasaz ari gara, hain zuzen. Ikastaroaren azkenean ikastaldiaren ebaluazio bat egin nahi bada, guztiz argigarri gerta daitezke datu hau kontutan hartzen. Ikaslearen jarraitasunaren edo jarraitasun ezaren arrazoia bilatzen saiatzea litzateke helburu nagusia, eta ez soilik honek klaseetan sor dezakeen hainbat eragin egiaztatzea.

3. KLASE AURRETIK BETETZEKO

3.1. Ikaspuntu zehatzak: klasean eman nahi diren gramatika edo bestelako edukin xeheak, esate baterako: NORK-NOR, –LA konpletiboa, e.a.

3.2. Ekintzak: esandako edukinak berrikusteko, edo azaltzeko erabiltzen diren joko, mural edo antzekoak.

- 3.3. Min:** Gai baten inguruan zenbat minutu erabiltzea kalkulatzeko den. Ez dago esan beharrik denbora banaketa arrazoitu bat derrigorrezkoa dela.
- 3.4. Erabiltzeko materiala:** klasean irakasleak edo ikasleak erabiliko duten materiala.
- 3.5. Etxerako lanak:** talde osoari nahiz ikasle bati etxean egin erazteko lanak: ariketa-orriak, gairen bat prestatzeko edo zerbait irakurtzeko aginduak, e.a.

4. KLASE ONDOREN BETETZEKO

Interesgarria da ematea espero zena eta eman dena gonbaratzea. Normalean ia inoiz ez da klasean ematen emanaldi horretarako prestatutakoa zehazki. Gutxiago eman da, edo guztiz desberdina eman da, edo gehiago eman da.

- 4.1. Burututakoa:** klasean emandako edukinak eta erabilitako ekintzak sartzen dira hemen.
- 4.2. Min:** egiatan klasean gai bakoitzari emandako denbora.
- 4.3. Materiala:** klasean erabilitakoa.
- 4.4. Etxerako lanak:** etxean egiteko banatutakoak

5. OHARRAK:

Orriaren atzeko aldean, klasearen ondoren jaso daitezkeen zenbait datu agertzen dira.

- 5.1. Ikasleen banakako aprobetxamendua:** sail honetan, ikasle guztien eguneroko aprobetxamendua jar daiteke, edo-ta arrazoi bategatik edo besterengatik destakatu diren zenbait ikaslerena bakarrik. Zerbait ikastea asko kostatu zaielako, ezer ere ulertu ez dutelako, e.a.
- 5.2. Ikasleen batzbesteko aprobetxamendua:** sail honetan bi neurtze-mota agertzen dira, biak era desberdinetan ematen bait dira klasean.
 - 5.2.1. Helburu mailan:** irakasleak ipinitako helburu didaktikoak zenbateraino bete diren klasean.
 - 5.2.2. Arreta mailan:** sarri gertatzen da interes handia izatea ikasleak, eta gutxi ulertzea edo besteei nekez jarraitzea. Arretak bere garrantzia du, eta orri honetako beste puntuek bezala, klasea ebaluatzeko izan behar du.
 - 5.2.3. Bestelako argibideak:** hainbat ohartxo sar daiteke hemen. Egun honetan edo halako egun batetan klaseorduaren erdia bakarrik eman dela, zerbait gertatu delako egun honetan ikasle gutxiago etorri dela klasera, halako ikasle batek hau eta hau esan duela klaseaz, zerbait gertatu dela ikasleen artean, e.a.

III. 2. JARRAIPEN-KURBA

Jarraipen-kurbaz bi hitz.

Zenbait klase eman eta gero, guztiz argigarria gertatzen da grafiko baten bidez ikasleen asistentzia azaltzea.

Grafiko honek, ondoko orrian ikus daitekeenez, bi ardatz ditu:

KLASEEN AZALPEN-ORRIA

IRAKASLEA	ASIGNATURA	MAILA
TALDEA	EGUNA	ZENBATGARREN KLASEA
IKASLE KOPURU TOTALA	KLASERA ETORRITAKOA	JARRAIPEN TASA

KLASE AURRETIK BETETZEKOA

IKASPUNTU ZEHATZAK	EKINTZAK	MINU-TUAK

KLASE ONDOREN BETETZEKOA

BURUTUTAKOA	MINU-TUAK

ERABILTZEKO MATERIALA:
ETXERAKO LANAK:


MATERIALA:
ETXERAKO LANAK:

1. **Ikasle-kopurua:** klase jakin baterako izena eman duten ikasle guztien kopurua jartzen da. Goitik beherako lerroan banan-banako zenbaki guztiak idatzi beharrean, egunero klasera etorritako ikasleen kopurua jar daiteke, grafikoan agertzen den bezala.
2. **Klaseak:** banaketa hau era desberdinez egin liteke:
 - A) Grafikoan bezala, klase-egunak ikastaroaren 1. egunetik azken egunera zenbatuz. Esate baterako, ikastaro batek 44 klase-egun –ez klase ordu– baditu, 1.tik hasi eta 44.eraino zenbatuko da grafikoaren azpiko lerroan.
 - B) Klase-egunak zenbatu beharrean, klase-orduak zenbatuz. Zenbatze honek klaseak ordu batekoak direla suposatuko luke.
 - C) Ikastaroa hasten den hilabete-egunaren zenbakia idatziz, klase bakoitza ematen den data edo hilabete-eguna jarriz.

JARRAIPEN-KURBA

Matrikulatutako ikasleak: 13

Ikasle Kopurua



Klaseak

Hemengo eredu honetan 13 ikasle ditugu matrikulaturik, baina inoiz ez dira denak elkartu klase batean.

Klaseak hiru modutan ezarri ditzakegu grafikoan:

- A) Klase-egunak: 1, 2, 3, 4,.....
- B) Klase-orduak: 1, 2, 3, 4,.....
- C) Data: 25, 27, 29 | 1, 3, 5,
URTARRILA | OTSAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

EUSKARA ZERBITZUAREN ARGITALPENAK

GLOTODIKATIKA-LANAK:

1. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. *N. Gardner.*
2. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. *J.A. Mujika.*
3. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. *I. Olaziregi.*
4. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: NEURPIDEAK (argitaratu gabea).
5. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU.
6. HAURRAK EUSKALDUTZEN GIÑOLAREN BIDEZ. *I.M. de Lezea-Kukubiltxo.*
7. EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA: PROGRAMA.
8. EUSKALZAINDIK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK.
9. HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. *M. de Lezea.*
10. IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. *L. Iriondo.*
11. JOLASEAN. *I. Urbietta.*
12. AMONAREN IPUINAK. *E. Genua.*
13. IPUIN GEHIAGO. *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada.*
14. ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. *I. M. de Lezea.*
15. HIZKUNTZ JOLASAK. *M. Sainz - I. Olaziregi.*
16. EABHEM: EUSKARA MAILA NEURTZEKO TESTA. *G. Ajuria - J. Ibarra - J. Sierra.*
17. EGA. 1983KO AZTERKETAK.
18. BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. *J. A. Letamendia.*
19. EUSKALKIZ EUSKALKI. *R. M. Pagola.*
20. KONTU KONTARI. *L. Iriondo.*
21. MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. *I. Urbietta.*
22. BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. *J. A. Letamendia.*

HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA:

1. BIZKAIERAREN IDATZIZKO ARAUAK.

ZABALKUNDE-LANAK:

1. EUSKAL IKASMATERIALEN BILDUMA 1984. *R. Berriozabal.*
2. EIMA PROGRAMA: EUSKAL IKASMATERIALGINTZA. 1984eko ekitaldiaren azalpen bateratua.
3. IRALE. AURKEZPEN - TXOSTENA. 1985-86